

Nekazaritza Saila

6453/2009 FORU AGINDUA, 2009ko abenduaren 10ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, tratamendu fitosanitarioen tratamendu ekipoak eta ongarrien banaketa ekipoak Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatzea arautzen duena.

Nekazaritzako makineriaren ezaugarri eta erregistroari buruzko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluek beharra eta baldintzak ezartzen dituzte eta Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialetan (ROMA deritzenak) inskribatu beharreko laborantza makinaren mota (nekazaritza, abeltzaintza edo basozaintzari lotutakoa) zehazten dute. Makina horien artean, II. eranskinaren h) eta i) letretan aipatu direnak, aurreko legediak behartzen ez zituenak, eta erabiltzen ari diren makinak daude, tratamendu fitosanitarioen tratamendu ekipoak eta ongarrien banaketa ekipoak, hain zuzen.

Errege Dekretuaren II. eranskinaren makina horiek deskribatu dira eta xedapen iragankor bakarrak bi urteko epea ezarri du, Errege Dekretua argitaratzen denetik zenbatuta, II. eranskinaren h) eta i) letretan aipatzen diren eta aurretik inskribatuta ez zeuden makinak ROMAn inskribatzeko; horrez gain, autonomia erkidegoei aukera eman die, aipatu gabeko beste makina batzuk inskribatzeko.

Horregatik guztiatik eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila Bizkaiko Lurralde Historikoko ROMAn arduraduna dela kontuan hartuta, egokia da xedapenak ematea, ezarritako aldian makina horiek behar bezala erregistra daitezen.

Hori guztia dela eta, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta bertako Lurralde Historikoen Foru-organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1.983 Legearen 7.b.1) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren 39 eta 64. artikuluetan ematen zaizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATU DUT

1. artikulua.—*Xedea*

Foru Agindu honen xedea Nekazaritza Sailaren Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean honako makina berri hauek zein erabiltzen ari direnak nahitaez inskribatzea da, Nekazaritzako makineriaren ezaugarri eta erregistroari buruzko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuaren eremuan:

- Herrestan eramaten diren edo esekita dauden tratamendu fitosanitarioen ekipoak, edozein edukiera edo pisu dutenak.
- Tratamendu fitosanitarioen zenbait ekipo, hala nola motordun motxila pneumatikoa, lainoztagailuak... (ikus definizioak makinaren ikuskapenari buruzko Errege Dekretuaren zirri-borroan).
- Herrestan eramaten diren edo esekita dauden ongarrien banaketa ekipoak, edozein edukiera edo pisu dutenak.

Aginduaren xedetik kanpo egongo dira barneko pistoia duten lainoztatze motxilak, presio atxikikoak, eta herbizidak aplikatzeko eskuzko ekipoak.

2. artikulua.—*Makinak inskribatzeko baldintzak*

Makinak ROMAn derrigor inskribatuko dira, haien titularrek eskatuta, eskabidea bete ondoren eta hurrengo baldintzak betez:

1. artikuluan aipatutako makinaren titularrak honako hauek izan beharko dute:

- Pertsona fisikoak edo juridikoak, nekazaritza ustiategi baten titularrak direnak.
- Pertsona fisikoak edo juridikoak, nekazaritza zerbitzuak ematen dituztenak, erregistro edo errolda ofizialetan inskribatuta badaude.

Departamento de Agricultura

ORDEN FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 6453/2009, de 10 de diciembre de 2009, por la que se regula la inscripción de equipos de tratamientos fitosanitarios y equipos de distribución de fertilizantes en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola.

El Real Decreto 1013/2009, de 19 de junio, sobre caracterización y registro de la maquinaria agrícola, en sus artículos 10 y 11 establece la obligatoriedad y condiciones y especifica el tipo de maquinaria agraria (agrícola, ganadera o forestal) a inscribirse en los Registros Oficiales de Maquinaria Agrícola (ROMA), figurando entre ella la maquinaria contemplada en las letras h) e i) del anexo II, que no estaba obligada por la anterior legislación, incluso la maquinaria ya en uso y concretamente los equipos de tratamientos de tratamientos fitosanitarios y equipos de distribución de fertilizantes.

Así, en el Anexo II del mencionado Real Decreto se describe dicha maquinaria y la Disposición transitoria única establece el plazo de dos años a partir de la publicación del mismo para la inscripción en el ROMA de las máquinas contempladas en las letras h) e i) del Anexo II no inscritas con anterioridad; posibilitando además a las Comunidades Autónomas a inscribir otras máquinas no contempladas.

Por todo ello y teniendo en cuenta que el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia es el responsable del ROMA en el Territorio Histórico de Bizkaia, procede establecer disposiciones para el adecuado desarrollo del cumplimiento del registro de dichas máquinas en el período establecido.

Hechas estas consideraciones, de acuerdo con lo establecido en el artículo 7.b.1) de la Ley 27/1.983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en uso de las facultades conferidas por los artículos 39 y 64 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia

DISPONGO

Artículo 1.—*Objeto*

El objeto de esta Orden Foral, en el marco del Real Decreto 1013/2009, de 19 de junio, sobre caracterización y registro de la maquinaria agrícola, es la inscripción obligatoria en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola del Departamento de Agricultura de la maquinaria nueva, y ya en uso siguientes:

- Equipos de tratamientos fitosanitarios arrastrados o suspendidos, de cualquier capacidad o peso.
- Equipos de tratamientos fitosanitarios tipo mochila neumática de motor, nebulizadores... (ver definiciones Borrador Real Decreto de inspección de maquinaria)...
- Equipos de distribución de fertilizantes arrastrados o suspendidos, de cualquier capacidad o peso.

Se excluyen del objeto de esta orden las mochilas de pulverización de pistón interno, presión retenida y los equipos manuales de aplicación de herbicidas.

Artículo 2.—*Requisitos Inscripción de las máquinas*

La inscripción de una máquina en el ROMA deberá hacerse de forma obligatoria a instancias de su titular, previa cumplimentación de la solicitud y cumpliendo los siguientes requisitos:

Los titulares de las máquinas señaladas en el artículo 1 deberán ser:

- Personas físicas o jurídicas titulares de una explotación agraria.
- Personas físicas o jurídicas que desarrollen la prestación de servicios agrarios, siempre que estén inscritas en los correspondientes registros o censos oficiales.

- Erakunde ofizialak eta laborantza heziketako zentroak, makinak laborantza mekanizazioaren berriazko zereginetan erabiltzen badituzte.

- Organismos oficiales y centros de formación agraria, cuando utilicen las máquinas en tareas específicas de mecanización agraria.

3. artikulua.—*Aurkeztu beharreko agiriak*

— *Makina berriak*

Makinaren titularrak hurrengo agiriak aurkeztuko ditu:

- Makinaren titularraren edo errentariaren NANA edo IFZ.
- 1013/2009 Errege Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako ereduaren arabeko ezaugarri ziurtagiria, fabrikatzaileak edo haren legezko ordezkariak egindakoa.
- EEren adostasun adierazpena, Makinen segurtasunari buruzko 98/37/EE Zuzentarauak esandakoa jasotzen duen azaroaren 27ko 1435/1992 Errege Dekretuaren arabera.
- Erosketa faktura edo salerosketa, leasing-a, renting-a eta abar adierazten duen kontratua. Horietako edozeinetan makinaren merkataritza izena argi eta garbi (marka eta modelo adierazita) zehaztuko da, eta horrek bat etorri beharko du ziurtagirian idatzitako datuekin.
- Makinaren titularrak 2. artikuluan aipatu diren baldintzetako baten bat betetzen duela egiaztatzea.

— *Erabiltzen ari diren makinak*

Makinaren titularrak hurrengo agiriak aurkeztuko ditu:

- Makinaren titularraren edo errentariaren NANA edo IFZ.
- Makinaren titularrak sinatutako adierazpena, makinaren identifikazio-datuak, marka eta modelo, bastidore zenbakia eta ezaugarri tekniko nagusiak adierazten dituena.
- Makinaren titularrak 2. artikuluan aipatu diren baldintzetako baten bat betetzen duela egiaztatzea.

4. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea eta erregistroa*

— *Eskabideak aurkezteko tokia*

ROMAn inskribatzeko eskabideak Nekazaritza Zerbitzuaren Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan aurkeztuko dira, eta horietan eskabideen inprimakiak eta informazio egokia emango dira.

— *Inskribatzeko epea*

Erabiltzen ari diren makinak ROMAn inskribatzeko epea 2011ko uztailaren 16an amaituko da.

Makina berriak inskribatzeko ez dago eperik: eskuratu ahala erregistrotako dira.

5. artikulua.—*Tramitazioa eta erregistroa*

Nekazaritza Zerbitzuak inskribatzeko eskabideak bideratuko ditu. Horrek bidezko egiaztapenak egingo ditu eta, horren ondoren, inskripzio ziurtagiri bat egingo du makina bakoitzerako. Inskripzioa ustiategiaren zati nagusia hartzen duen udalerrian egingo da. Zerbitzu enpresei dagokienez, aldiz, enpresaren helbide soziala duen udalerrian.

Eskatutako agiriak eransten ez dituzten eskabideak baztertu egingo dira.

Makinen bajak eta titulartasun aldaketak Nekazaritza Zerbitzuan egingo dira, makinaren titularrak eskatuta.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Hala badagokio, Foru Agindu honen xede diren makinaren inskripzioak Zerbitzu Agronomikoen kudeaketa tekniko-fakultatiboaren ziozko tasa sorraraziko du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Bastidore zenbakirik ez duten makinetan, banakako identifikaziorako zenbakia trokelatu edo grabatuko da, modu ezabaezinean, haren xasisean; Nekazaritza Zerbitzuak esleituko du zenbaki hori.

Artículo 3.—*Documentación a presentar*

— *Máquinas nuevas*

El titular de la máquina, presentará la siguiente documentación:

- DNI o NIF del titular o arrendatario de la máquina.
- Certificado de características según el modelo indicado en el anexo IV, del Real Decreto 1013/2009, y expedido por el fabricante o su representante legal.
- Declaración de conformidad CE de acuerdo con el Real Decreto 1435/1992, de 27 de noviembre que contempla lo dictado por la Directiva 98/37/CE, de seguridad en las máquinas.
- Factura de compra o contrato de compraventa, leasing, renting, etc. En cualquiera de ellos se especificará claramente la denominación comercial (marca y modelo) de la máquina, que deberá coincidir con los datos reflejados en el certificado.
- Acreditación de que el titular de la máquina reúne alguna de los requisitos contemplados en el artículo 2.

— *Máquinas ya en uso*

El titular de la máquina, presentará la siguiente documentación:

- DNI o NIF del titular o arrendatario de la máquina.
- Declaración firmada por el titular de la máquina, en la que se reflejen los datos identificativos de la misma, marca y modelo, número de bastidor y sus principales características técnicas.
- Acreditación de que el titular de la máquina reúne alguna de los requisitos contemplados en el artículo 2.

Artículo 4.—*Plazo de solicitud y registro*

— *Lugar de presentación de solicitudes*

Las solicitudes de inscripción en el ROMA se presentarán en las Oficinas Comarcales Agrarias, el Servicio Agrícola, donde se les entregará los impresos de las solicitudes e información oportuna.

— *Plazo para la inscripción*

El plazo para la inscripción en el ROMA, de las máquinas ya en uso, finalizará el 16 de julio de 2011.

Para las máquinas nuevas no existe plazo, éstas se registrarán a medida que se vayan adquiriendo.

Artículo 5.—*Tramitación y registro*

Las solicitudes de inscripción serán tramitadas por el Servicio Agrícola, que procederá a efectuar las comprobaciones oportunas, tras lo cual emitirá un certificado de inscripción para cada máquina. La inscripción se efectuará en el municipio donde radique la parte principal de la explotación. En el caso de las empresas de servicios, donde radique el domicilio social de la empresa.

Las solicitudes que no presenten la documentación exigida serán rechazadas.

Las bajas y cambios de titularidad de las máquinas se realizarán en el Servicio Agrícola a instancias de su titular.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

La inscripción de las máquinas objeto de esta Orden Foral generará, en su caso, la tasa correspondiente por gestión técnico-facultativa de Servicios Agronómicos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

En aquellas máquinas que carezcan de número de bastidor, se troquelará o grabará de forma indeleble en su chasis, el número para su identificación individual, que será facilitado por el Servicio Agrícola.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Nekazaritza Sailak, sektoreko elkarrekin batera, ahalik eta zabalkunderik handiena egingo du eta informazio egokia emango du elkartekideen artean eta, oro har, sektorean.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2009ko abenduaren 10ean

Nekazaritzako foru diputatua,
IRENE PARDO PORTILLO

(I-1971)

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

El Departamento de Agricultura junto con las Asociaciones sectoriales efectuarán la máxima difusión y proporcionarán la información adecuada entre asociados y sector en general.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao a 10 de diciembre de 2009.

La diputada foral de Agricultura,
IRENE PARDO PORTILLO

(I-1971)

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

EDIKTUA

Iragarkia, Hiritarren Segurtasunaren Babeserako 1/1992 Lege Organikoaren arauak ustez haustegatik, behean aipaturiko zigor-espedienteen instrukzio-egileak egindako ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena.

Espedientatuei jakinarazpenak helarazi nahi izan zitzaizkien arren, hori egitea lortu ez zenez, iragarki hau argitaratzen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. eta 61. artikuluetan xedatutakoa betez.

Interesatuek jakin dezaten azaltzen da jendaurrean hori guztia, interesatuek norbanako jakinarazpentzat har dezaten, eta honako hau ohartarazten zaie:

Iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, 15 egun balioduneko epea dutela jakinarazten zaie, alegazioak aurkezteko, espedienteak ikusteko eta agirien kopiak lortzeko, Bilboko Udaleko Hiritarren Segurtasun Saileko bulegoetara joan daiteke (Luis Briñas 16, 1. solairua) edo 944 205 020 telefonora deitu espedientearen zenbakia adierazita.

Izen-abizenak: Juan Jiménez Jiménez.

Espediente zenbakia: 094037000275.

Lege-hauste data: 15/06/2009.

Proposamen data: 12/11/2009.

Hautsi araua: 25.1.

Zigor proposamena: 150 €.

Bilbon, 2009ko abenduaren 3an.—Hiritarren Segurtasuneko Zuzendari Nagusia

(II-9720)

EDIKTUA

Iragarkia, Hiritarren Segurtasunaren Babeserako 1/1992 Lege Organikoaren arauak ustez haustearren irekitako zehapen-espedienteetan —beherago zehaztutakoetan— Hiritarren Segurtasun Saileko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenak jakinarazteko dena.

Espedienteak egin zaienei ebazpen horien jakinarazpenak helarazi nahi izan zaizkien arren, hori egitea lortu ez denez, iragarki hau

Ayuntamiento de Bilbao

EDICTO

Anuncio, por el que se notifican las Propuestas de Resolución de la Instructora de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana.

Intentada sin efecto la notificación de dichas Propuestas de Resolución, se publica el presente anuncio en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 59.4 y 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados, a quienes debe servir de notificación individual, con las siguientes advertencias:

Disponen del plazo de 15 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio para formular alegaciones, examinar el expediente que se encuentra a su disposición y obtener copias de los documentos que obran en el mismo, en la Oficina General del Servicio de Seguridad Ciudadana de este Ayuntamiento, calle Luis Briñas, número 16, 1.ª planta, de Bilbao o bien solicitar información telefónica al número 944 205 020, facilitando en todo caso el número de expediente.

Nombre y apellidos: Juan Jiménez Jiménez.

Número expediente: 094037000275.

Fecha infracción: 15/06/2009.

Fecha propuesta: 12/11/2009.

Artículo infringido: 25.1.

Sanción propuesta: 150 €.

En Bilbao, a 3 de diciembre de 2009.—El Director Jefe de Seguridad Ciudadana

(II-9720)

EDICTO

Anuncio, por el que se notifican las Resoluciones del Concejal Delegado del Área de Seguridad Ciudadana, incoatorias de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, de Protección de la Seguridad Ciudadana.

Intentadas sin efecto las notificaciones de dichas resoluciones, se publica el presente anuncio en cumplimiento de lo dispuesto en